



Elikagaien prezioak



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) elikagaien krisi berri baten aurrean gaudela ohartarazi du. Erakunde horren arabera krisi hau erritmo kezagarrian ari da zabaltzen horrelako egoerak sortarazteko ohikoak diren hiru arrazoi elkarrekin ematen ari baitira: Ukrainako inbasioa, ingurugiroaren hondamendia eta elikagaien prezioen gorakada.

Laboreen eta bestelako lehengaien behin behineko urritasuna ekarri duten arren, Errusiak Ukraina inbaditu izana ondasun horien prezioak igotzen jarraitzeko aitzakia aparta da elikagaien konpainia erraldoientzat. Baina FAO erakundearen datuei erreparatzen badiegu bistakoa da elikagaien prezioen igoera Ukrainaren inbasioaren aurretik ematen ari zela iada. Erakunde horren arabera mundu mailako elikagaien prezioen indizea 2011. urtean 131,9 izan zen, 2021ean 125,7; 2022ko otsailean (inbasioaren aurretik) 140,7 eta azken abuztukoa 138ra jaitsi zen. Familiaren oinarritzko saskiaren prezio igoera %47,8koa izan zen 2020ko martxoaren eta 2022ko otsailaren artean. Gerra lehertu zenerako elikagaien prezioek goranzko joera nabarmena zuten.

FAOk egindako kalkuluaren arabera urte honetan 2.774 milioi tona labore ekoiztuko dira, 2021. urtean baino 38,9 milioi gutxiago bakarrik. Hots, laboreen prezioek igotzen jarraitu dute 2022an

Gerra lehertu zenerako elikagaien prezioek goranzko joera nabarmena zuten

hauen ekoizpena oso gutxi urritu den arren. Beraz, gerrak eta ekoizpen eskasiak elikagaien prezio igoeran eragin mugatua dute. Sakoneko arrazoiak ulertzeko ondasun hauen merkatu egiturak aztertu behar dira.

Biztanleak gutxi asko elikagaiez hornitzeko gauza ziren herrialdeetako elikagai sistemak sare global bateko parte bihurtu dira globalizazioarekin. Ere honetan eman den kapitalen kontzentrazioari esker, munduko biztanlegoaren gehiengo zabal baten elikaduraren oinarria osatzen duten elikagaien merkatuen kontrola eskuratu dute hamar konpainia erraldoiek. Oxfamen esanetan *big ten* hauek merkatu ia monopolistikoak lideratzen dituzte eta merkatu bosterea eskuratuta prezio igoerak bultzatu dituzte.

Baina bada besterik elikagaien prezio igoerak azaltzeko orduan. Lehengaien eta elikagai gordinen munduko

merkatuetan ekoizpenaren ondoren sortzen dena, alegia, jorratzen den funtzionamendua, oso bitxia da. Merkatu hauetan egiten diren lehengai gordinen salerosketa kontratuetan epe jakin batean eskura emateko ondasun baten salerosketa sinatzen da, eta trukerako kantitatea eta prezioa ezartzen dira, gero merkatuak, alegia. Nolanahi ere, merkatu hauetan bankuek, inbertsio edo pentsio fondoez ere parte hartzen dute denbora tarte horretan suertatzen diren prezio aldaketekin espekulatzeko asmoz. Inbertsio fondo eta banku nagusiek merkatuaren gaineko kontrola duten heinean beren etekinak gizontzeko prezioak erabakitzeko ahalmena dute.

Mekanismo berezi hau erabilia azkenaldian elikagai gordinen prezioen igoera bultzatu dute finantza eragile hauek. 2008 urte ondoko krisialdian hasi ziren mekanismo hau erabiltzen elikagaien prezioak igoz eta desnutrizio zein gosetea zabalduz. Pandemiaren ondoren berrindartu egin dira ekimen hauek. Izan ere, Pariseko gari merkatuan adibidez espekulatzailerik hauen esku hartzea 2021eko %23tik 2022ko apirileko %72ra igo da IPES Food erakundearen arabera. Joan den hamarkadan Europar Batasunak neurriak hartuko zituela iragarri arren finantza erraldioen lobbyak asmo hori bertan behera uztea lortu zuen. Oraingoan neurriak efektiboak egin behar dira ezinbestean. ●